

**EBAZPENA, KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARIARENA, 2022-2023 IKASTURTEKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASKETAK EGITEKO BEKA, LAGUNTZA ETA SOROSPENETARAKO EBAZPENEAN EGINDAKO AKATSAK ZUZENTZEKOA.**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua, eta dagoeneko indargabetuta dagoen Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 105.2 artikulua, honako hau ezartzen du: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikokoak".

2022ko abenduaren 21eko Ebazpena, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko ekainaren 14ko Aginduaren babesean ebatzitakoa (agindu horren bidez, unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko bekak, laguntzak eta sorospenak deitzen dira 2022-2023 ikasturtean), aztertu da, eta egiaztatu da, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzen txostenak ikusita, akats materialak edo egitezkoak daudela, eta horiek zuzendu egin behar direla.

Horrenbestez, aipatu araudia eta aplikagarria den gainerako legedi orokorra kontuan hartuta, eta eman zaizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

2022-2023 ikasturterako unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko bekei eta ikasketa-laguntzei buruzko 2022ko abenduaren 21eko ebazpenean antzemandako akats materialak edo egitezkoak zuzentzea, eta 62.892 € ordaintzea, akatsak zuzendu ondoren sortutako aldeengatik, Eranskinean zehazten diren datuen arabera.

RESOLUCIÓN DE LA DIRECTORA DE GESTIÓN ECONÓMICA DE CORRECCIÓN DE ERRORES DE LA RESOLUCIÓN DE BECAS, AYUDAS Y SUBSIDIOS PARA REALIZAR ESTUDIOS DE NIVELES NO UNIVERSITARIOS PARA EL CURSO ACADÉMICO 2022-2023.

El artículo 109.2 de la *Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas*, en idénticos términos que el artículo 105.2 de la derogada *Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común*, establece que "*Las Administraciones Públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos existentes en sus actos*".

Revisada la Resolución de 21 de diciembre de 2022, resueltas al amparo de la Orden de 14 de junio de 2022, de la Consejera de Educación, por la que se convocan becas, ayudas y subsidios para realizar estudios no universitarios, en el curso 2022-2023, se constata, a la vista de los informes de las Delegaciones Territoriales de Educación, la existencia de errores materiales o de hecho que deben ser subsanados.

En su virtud, vista la normativa citada y demás de general y concordante aplicación, y en virtud de las atribuciones que me han sido conferidas

RESUELVO:

Corregir los errores materiales o de hecho, detectados en la resolución de 21 de diciembre de 2022, de becas y ayudas al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles no universitarios para el curso académico 2022-2023, y abonar 62.892 € por la diferencias generadas tras la corrección de errores, según los datos reflejados en el Anexo.

Vitoria-Gasteiz,

**ANE URKIOLA ALUSTIZA
KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARIA**